


Nafarroako Gobernuak teman segitzen du ETB digitalean emititu nahi ez eta

NAFARROAKO GOBERNUKO Industria Ministerioak adierazi du EAri jarritako 45.000 euroko isuna ez duela atzera botako, eta Auzitegi Nazionalean bideratzen ari diren auzi judizialak aurrera jarraituko duela.

EAK esan du auzi-errekurtsua jarriko duela Auzitegi Nazionalean, eta Espainiako Estatuan ezer lortzen ez badute Europara joko dutela. Miren Aranoa EAko kidearen iritziz, “auzitegiek azken buruan arrazoia emango digute eta hemen ez bada, Europan”.

Duela urtebete baino gehiago, EAko hainbat militantek Iruñerrian ETB1 eta ETB2 modu digitalean ikusteko hedagailua ezarri zuten. Gobernuak isuna jarri eta bide judiziala ireki zuen. EAren ustez, ekintza hark PPren eta UPNren jarrera irizpiderik gabea izan zela erakutsi zuen. Izan ere, hedagailua ez jartzeko haiek emandako argudioa ekonomikoa zen. EAK abiatuko duen prozesu judizialak diru beharrak eragingo dituen kontu korronea ireki dute.



Korrikaren ardura utzi du Edurne Brouardek

DOZENA BAT URTE behintzat aritu da AEK-k antolatzen duen Korrika prestatzen. Azken sei ekitaldietako arduradun nagusia izan da. Dena dela, 1982. urtetik antolakuntza taldean ari zen lanean. AEKn segiko du beste hainbat zereginetan.

Korrikaren arduradun nagusi berria Asier Amondo izango da, orain arte AEKren Arabako ordezkari nagusia.

Android euskaratzeko maratoia ostiralean

HILABETEA DARAMATZATE Android sistema eragilea duten gailuak euskaraz erabili ahal izateko itzulpenak egiten. Bolondres taldea da horretan ari dena, nola ez, eta itzulpena bukatzeko gutxi falta denez CodeSyntax enpresak *Andro-*

matia antolatu du. Uztailaren 12an, ostiralean, enpresaren Eibarko egoitzan elkartuko dira bolondresak azken itzulpenak egiteko eta euskaratu dutela ospatzeko. Bolondres izan nahi baduzu idatzi hona: androideuskara@gmail.com.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Subiranotasun politikoa eta laborala praktikatu

UZTAILAREN 7A mugarria izan da negoziazio kolektiboan eta probintzietako eta sektoreetako hitzarmenetan, Troikak eta PPK inposatu eta orain Gasteizko eta Iruñeko gobernuak onartu duten lan erreforma zentralizatzaileari esker. Baina hamarnaka mila langileren lan-harremantetan subiranotasun politikoa eta laborala praktikatzeko mugarri ere izan zitekeen. Aitzitik, subiranotasun politikoa eta laborala praktikatzeko beharrezkoa da borondatea eta ausardia politikoa administrazio publikoen eta euskal patronalen eskutik. Eta hori ikusteke dago.

Uztailaren 7aren ondoren 113 sektore-hitzarmen bertan behera geratu dira EAEn eta 350.000 pertsonari eragin die. Nafarroan sektore-hitzarmen gehienak sinatu dituzte, baina lan baldintza kaskarragoetan. Lan erreformak sektoreetako eta probintzietako hitzarmenak deuseztatu nahi ditu. Euskal Herriko patronalak, bestalde, erreforma hori aplikatzearen alde azaldu dira; Adegik esan du “aukera gehiago ekarriko dizkien esze-

natokia zabaldu” dela. Adegik ez du esan ordea zein diren aukera horiek, baina garbi dago lan harremanak norbanakora pasa nahi dituztela, baldintzak kaskartu eta soldatak eta eskubide sozialak murrizteko, eta modu horretan euren etekinak handitu. Industria iraultzara itzuli gara, kapitalismo basatienera, orduan ere lan harremanak banaka-banaka zehazten ziren.

Ezin dugu atzera egin, ezin da Troikaren eta Rajoyren erreforma onartu. Herri subirano gisa ekin behar diogu. Administrazioak, patronalak eta sindikatuak ados jarri beharko liriateke lan harremanen euskal markoa errespetatzeko, eta ondorioz, hitzarmen kolektiboak, sektoreetakoak eta probintzietakoak errespetatzeko, hobetzeko eta eguneratzeko, Troikari eta Rajoyri begira egon gabe. Horixe litzateke subiranotasun politikoa eta laborala praktikatzeko.

Juan Mari Arregi

